

# Herri musikaren dokumentazio zentru bat egiteko, antolatze eta funtzionamendurako egitasmoa

(Program for the creation, organisation and operation of a documentation centre for popular music)

Beltran Argiñena, Juan Mari  
Herri Musikaren Txokoa  
Ergoien  
20180 Oiartzun

BIBLID [1137-4470 (1999), 11; 183-201]

---

*Egileak, herri musikak hobeto ezagutu eta hedatzeko, Herri Musikaren Txokoa antolaketarako egindako proiektua aurrera eraman du 1995etik. Oiartzungo Ergoien Eskola zenaren etxean 800 soinutresnatik gorako bildumaren era - kusketa eta datubaseaz gain, biblioteka espezializatu, fonoteka, irudi arxiboa eta tailerra antolatzen ari da. Artikulu ho - netan, dokumentazio zentru hau eraikitze izan duen egitasmoa azaltzen da.*

*Giltz-Hitzak: Herri Musikaren Txokoa. Musika tradizionala. Soinu-tresna. Dokumentazio zentrua. Sailkapena.*

*El autor, desde 1995, está llevando adelante el proyecto de creación del Herri Musikaren Txokoa con el objetivo de dar a conocer y difundir las músicas tradicionales. En la que fuera la Escuela de Ergoien de Oiartzun está elaborando y organizando una base de datos y una exposición de los más de 800 instrumentos que posee, así como una biblioteca especializada, fonoteca, archivo de imagen y taller. En este artículo se expone el proyecto de este centro de documentación.*

*Palabras Clave: Herri Musikaren Txokoa. Música tradicional. Instrumento musical. Centro de documentación. Clasificación.*

*Depuis 1995, l'auteur poursuit le projet de création du Herri Musikaren Txokoa dans le but de faire connaître et de diffuser les musiques traditionnelles. Dans ce qui fut l'Ecole de Ergoien de Oiartzun, il élabore et organise une base de données et une exposition des plus de 800 instruments qu'il possède, ainsi qu'une bibliothèque spécialisée, photothèque, archives d'image et atelier. Dans cet article, on expose le projet de ce centre de documentation.*

*Mots Clés: Herri Musikaren Txokoa. Musique traditionnelle. Instrument musical. Centre de documentation. Classification.*

## 1. HERRI MUSIKA ETA SOINU-TRESNEI BURUZKO GAIAN SARRERA GISA

Herrien arteko ezberdintasuna gehien adierazten duen elementua, dudarik gabe, bere berezko herri kultura da, honen osagai garrantzitsuenetariko bat musika delarik.

Zer da eta nola osatu da munduko herri bakoitzarekin ain lotua eta identifikatua dagoen ondare kultural hori, eta konkretuki guk hemen agertu nahi dugun herrietako berezko musika?

Asko dira herri musika fenomeno fosilizatua, eta aldagaitza dela pentsatzen dutenak. Beraien ustez, herri musikak interpretazioa bakarrik onartzen du, sormenari aukerarik eman gabe. Hau pentsatzen dutenen artean, herri kulturarekin eta batez ere "folklore"rekin loturik daudenak aurki ditzazkegu. Beraien eginkizun eta ekintzetan interpretazio soilera mugatzen dira, "egiazko bertsioaren" benetakotasun eta jatortasuna aldarrikatuz.

Bestalde, herrietako herri kultura tradizionala, gure kasuan herri musika, historiaren mementu batean eta era indibidual batean sortua izan ondoren, era aldagaitz batean errepikatua ez dela pentsatzen duten folkloreaken ikerleak askoz gehiago dira. Azken hauentzat, herri musika zuzenean belaunaldiz belaunaldi transmititua izan da talde baten barnean edo famili bertan. Bere osaketan, neurri haundiago edo txikiago batean, parte hartzen joan da belaunaldi bakoitza, eta are gehiago, berau erabili duen gizarte talde eta pertsona bakoitza.

Doinu eta abesti herrikoiak biltzen ibili eta ibiltzen direnak lekuko izan ziren eta dira, nola, doinu edo abesti bera aldatua izaten den, bai kokapen ezberdineko lekutan jaso izan ondoren eta baita kokapen berdineko gazte bati edo heldu bati jasoa izan ondoren. Baita ere, aldaketa handia jasango du, abestua izatetik soinu-tresna batekin jo izatera edo soinu tresna ezberdinak erabiltzean. Berdina gertatuko da, leku berean handik denbora batera berriro jasotzean, eta askotan interprete bera da saio batean aldaketak egiten dituen.

Horregatik, herri kantutegietan, jatorri bereko doinu batean barietate edo aldaera haundiak aurki ditzazkegu, era horretan frogatuz, herri musika fenomeno bizia eta aldakorra izan zela, eta kasu askotan izaten jarraitzen duela.

Ikus dezagun C. Brailoiu etnomusikologo errumaniarrak gai horretaz zer esaten duen:

*« Herri doinuak....benetan abestu edo interpretatua den mementuan bakarrik du iza-  
tea, eta bere interpretearen borondateagaitik bakarrik bizi da berak nahi duen moduan....  
Sortzea eta interpretatzea bertan nahasten dira....musika idatzi eta inpresioak ezagutzen ez  
duen moduan.»<sup>1</sup>.*

Kantutegi herrikoiak horrela osatu dira denboran zehar, bakarka eta talde lanaren ondorio, fruitu eta emaitza besterik ez dira, denen artean itxura estetiko eta pertsonalitate berezia emanez.

Osaketa horretan ez dugu ahantzi behar, kultura herrikoiak fenomeno irekiak izan direla, eta historian zehar herri ezberdinen artean gertatutako era askotako harremanetan izan dituzten elkarren arteko eraginak.

Gaur egun, eta batez ere mendebaldeko eta honen eragina jasatzen duten herrialdeetan, kulturaren zabaltze sistemak asko aldatu dira. Iadanik ez dira belaunaldiz belaunaldiko komunikazio era posible egiten zuten lehengo baldintzak ematen. Informazioa beste bide batzuetatik jasotzen da (idatzia, irratia, telebista, musika grabazioak...), jasotzen dugun berri

1. Béla Bartók. "Escritos sobre Música Popular", p. 43. México, 1979. Siglo Veintiuno Editores.

Herri musikaren dokumentazio zentru bat egiteko, antolatzeko eta funtzionamendurako egitasmoa

orokorraren kopurua ugariago eta zabalagoa da, nazioaren muga berberak ere gainditzen direlarik.

Musikan ere berdin gertatzen da. Edozein momentuan, mundu eta estilo guzietako musika entzuteko aukera gure eskuan dugu. Honek eragin du, besteak beste, egiten den musika forma berrietan. Itxura estetikoak gero eta estandarizatu eta "omologatua" goak dira eta egiten eta dastatzen dugun musikan, "herri" osagai horrek bere garrantzia galdu du. Aurrekoarekin batera, aipatu beharra dago, musikan, "herria" ren parte hartze aktibo eta zuzena txikiagoa dela.

Horregatik, azken garaian hainbat eta hainbat musika hizkuntz bereziak galduak izan dira, eta honek eragin du, herri askotako ondarearen atzerakada ain era nabarmenean ematea.

Bizitzeko, harremanak izateko eta komunikatzeko erak izan dituen aldaketak, aurreko ohi-turekin loturiko zenbait elementu kulturalen eraginkortasunean (hala nola, dantzetan, abestietan eta nola ez hauei bizitza ematen zien soinu-tresnetan) galerak ekarri ditu.

Musikan, iadanik, lehenengo urratsak ez dira lehen bezala zuzenean ematen, ahotsak eta inguruko soinu tresnak entzunez.

Seaskan dagoen haurra lasaitzeko edo motibatzeko erabiltzen ziren abestiak, diska eta kasete komertzialengatik baztertuak izan dira.

Haur jolasak ez dira partehartzaileek abesturiko doinuen bidez egiten. Iadanik ez dira erritmo, tinbre eta linea melodiko ezberdinak ezagutzen hasteko soinu-zuko jostailurik egiten. Aldaketa hauekin batera, psikomotrizidadearen eta gorputz trebetasunaren garapenean, abesteko eran, materialen eta beren soinu ezaugarrien eta soinu tresnen erabileraren eza-gutzan galerak jasan dira.

Gazteek berriz, ez dute lehen bezala, beren festa eta bileratxotan abesten, orain, gehienetan, grabaturik dagoen musika entzutera mugatzen dira.

Berbera gertatzen da besteak beste, lana, urtaro, uzta, gizarteko gertaera ezberdin, e.a.ekin lotua dagoen musikarekin.

Beraz, musika, pertsona eta gizartearekin zuzenean harremanetan zegoen. Orain, bere bizitzan parte hartzen zuen musika, gutxi batzuek egiten duten musikaren kontsumoagatik aldatua izan da, bai famili eta baita gizartean ere. Ondorioz, forma musikalen aniztasuna egunetik egunera txikiagoa da eta komenigarria izango litzateke atzera begiratzea, lehen zegoena ezagutzeko. Argi izan behar dugu ez direla egoera haiek berriro emango, baina, oraindik irauten duena mantentzen eta galdu denaren baliagarriena berreskuratzen saiatu beharko ginateke.

### **1.1. Soinu-Tresnak Herri Musikan**

Musikari forma ematen dioten osagarriak asko dira, nabarmenenak, doinua, erritmoa, armonia eta tinbrea direlarik.

Munduan zehar sortu izan diren musika herriko bakoitzaren itxura hartzean eragina izan duten zergatiak zehazteko, ikerketa sakon bat beharko litzateke. Baina, zalantzarik gabe, herri bakoitzeko bertako musikaren itxura estetikoan eragin, mugatu eta zehaztu izan dutenak, bertako soinu-tresna autoktonoak izan dira.

Soinu-tresna hauen tinbre eta eskala bereziek, soinuaren emisioak, tesiturak, estensioak, e.a.,ek kolore eta forma melodiko ezberdina eman diete herri ezberdinetako musika autoktonoei. Orkestra edo talde eraketak eta soinu tresna polifonikoez ere eragin izan dute eraketa armonikoetan.

Nola, noiz eta non sortzen dira soinu-tresna autoktonoak? Herri musikaren atalean ikusi dugun bezala, honetan ere zenbaitzuk galdera hauentzat erantzun konkretuak nahiko lituzkete, baina hori guretzat ezinezkoa da, ezagutzen ditugun soinu-tresna gehienak ez bait ziren asmatu gaur egun duten itxura eta ezaugarriekin. Oraingoak lehengo soinu tresna hoiak jasandako aldaketan, erreformen eta garapenen emaitza dira. Garapen eta aldaketa hauek ez dira, soilik, herri bakoitzak bere soinu-tresnengan egindakoak. Arlo honetan, besteetan bezala, kulturen arteko eragina ematen bait da, historian zehar beren artean izandako era ezberdinetan emandako harremanetan.

Hasierako forma instrumental haietatik, (hala nola, txaloak, ahotsa, hankekin kolpatzea, edo inguruan aurki zitezaketen materialekin egindako lehenengo tanborrak, flautak, soka tinkatuak, e.a.), gaurko egunera, asko izan dira, herri ezberdinetako soinu-tresnen eraketetan eragina izan duten zergatiak.

*«Gutxi gora behera kultura guztietan antzekoak izan diren eta egoera natural batetan erabiliak izan diren aintzinako soinu-tresnak, era landuago batean eginak izaten ziren, herri bakoitzak emandako funtzioaren eta teknika ezagupenen arabera. Beste kulturetatik hartutako soinutresnek aldaketak jasan dituzte herri hartzaileen baldintzen eta aukeren arabera»<sup>2</sup>. Guzti horrengatik, eta kultura herrikoia hainbat adarretan gertatzen den bezala, oso zaila egiten zaigu jakitea soinu-tresna horiek ze neurritan dituzten osagai unibertsalak edo bertakoak..*

## 2. “HERRI MUSIKAREN TXOKOA”. HERRI MUSIKAREN DOKUMENTAZIO ZENTRUA

Ondorengo orrialdeetan, herri musika inguruko dokumentazio zentru bati buruz prestatutako egitasmoa aurkezten dugu. Honetan, ideia, nahia eta errealitatea nahastu egiten dira. Alde batetik, nola nahiko genuke izatea halako zentruari buruzko ideiak aurkezten dira eta bestetik, orain arte osatutako soinu-tresna eta dokumentazio bilduma eta Oiartzungo Udalak eskeinitako azpiegitura eta laguntzan oinarriturik antolatzen ari garan errealitatea aurkezten da.

Ikerle, egile, jole eta irakasle gisa, herri musikari emandako urte guzti hauetan, bai soinu-tresnak eta baita herri musika eta soinu-tresnei buruzko informazioa (batzutan editatuak eta besteetan ez) biltzea lortu izan dut.

Mota desberdinetako dokumentazio datu eta materialen bilketa handitu egin den neurrian, aspaldidanik, hemen aurkezten dudana asmoa darabilkit buruan.

Bildutako material guzti honekin, eta lortu daitezkeen gehiagorekin, datu gordailu, ikerketa eta topagune bat eratu daiteke. Hau dena, herri musika, eta herri soinu-tresnen inguruan. Lana ez da batere erraza, baina bai interesgarria eta beharrezkoa, batez ere, Euskal Herri guztian honako ezaugarriak dituen gunerik ez dagoela ikustean.

---

2. Ernesto Veiga de Oliveira. “Instrumentos Musicais Populares Portugueses”, p.9. Lisboa, 1982. Fundação Calouste Gulbenkian

1994. urtean lehen aurregitasmo bat Euskal Herriko erakunde batzuen aurrean auzkeztu eta gero, Oiartzungo Udalak utzitako Ergoien hauzoko eskola publikoa izandako etxea Herri Musikaren Txokoaren egoitza biurtu zen. Geroztik, bertan ari gara lanean, egunez egun egitasmo eta helburu hau gure herriko sektore ezberdinek erabil lezaketen errealitate izan dadin.

## 2.1. “Herri Musikaren Txokoa” herri musikaren bultzagilea

Herri Musikaren Txokoa dokumentazio zentru izateaz gain, herri musikaren bultzagilea izan beharko luke, herri musikak izan duen egoeratik egungo egoerara eman duen aldaketa kontuan harturik eta egoera honetatik aurrera begira.

Aurrerago ikus dezakegunez, Euskal Herrian egin diren musikak eta erabiliak izan diren soinu-tresnen zerrenda oso luzea da eta ziurtaun osoz esan dezakegu, historian zehar, organologia arloan, munduko beste herri askotan bezala, guk ere multzo handia eta oso bariatua izan dugula.

Azken garaietan, bere funtzionaltasunak garrantziko atzerapausoa jasan du, eta ondorioz, zenbait kasutan bere ingurutik desagertzera iritsiz (txanbela, Gipuzkoan alboka, toberak, sunprinua,...). Batzuk, baztertuak dauden leku eta ekitaldietan larri larri irauten dute. Iraupen hau ohituragatik, zerbait exotikoa delako edo lekukotasunagatik ematen da.

Oraindik, zorionez, leku eta okasio batzuetan garai batean bezala, era naturalean beren funtzioa betetzen jarraitzen duten herri soinu-tresnak aurkitu badituzakegu ere (hau da, beren hots eta musikagatik), gaur egun, era horretan onartuak diren herri soinu-tresnen kasuak ezohikoak dira.

Garai batean, soinutresna hauek eta bere musika inguruagatik onartua zirenean, ikaste-ko demanda haundiagoa ematen zen, eta ondorioz, musiko konpetenteagoak sortzen ziren.

Baina lehenago esan dugun bezala, gaur egungo egoera bestelakoa da. Gaur egun, gehienentan, herri soinu-tresnak eta beren musikak guztiz ezezagunak dira bere inguruan ere, eta oztopo guztiei aurka eginez, berau irautarazten saiatzen diren “sinestun” batzuren lana eta enpeinuagatik jarraitzen dute kasu batzu bizirik.



Egoera honetan Herri Musikaren Txokoa herri kultura eta musika inguruko gauzetan laguntzarako, berreskuratzeko eta garapenerako tresna izan beharko luke, erronka horretan bere ahalmen guztiak emanez.

## 2.2. Helburuak

- Herri Musika eta herri soinu-tresnak ezagutzeko, ikerketarako eta topagunerako dokumentazio zentru bat sortzea.
- Euskal Herriko kultura eta bereziki herri musika era didaktiko, ulergarri eta entrenigarrian mota guztietako hartzaileen eskuetan jartzea. Euskal kulturean, eta batez ere herri eta munduko herri musikan nolabaiteko interesa edo kuriositatea duten guztiei, bai bertakoei eta baita ere, arlo honetan gure herria ezagutu nahi duten kanpoko bisitariari aukera erakargarria zabaltzea.
- Ikastetxeetako eta Musika Eskoletako ikasleei musika klase teoriko, praktikoko eta aktiboko eskeintzea beraien musika ikasketen osagaitzat.
- Ikastetxe, Musika Eskola eta kontserbatorioetako irakaslegoari formazio obekuntzarako ikastaro teoriko, praktikoko eta aktiboak.
- Era ezberdinetan herri musikan aktiboki jarduten dutenei ikasketak, ikerketak, topaketak eta formaziorako ekintzen antolaketa.
- Herri Musikaren Txokoa izan dadila jende askorentzat modu bizian elkartzeko toki, hitzaldi, emanaldi, ikusentzualdi eta erakusketak antolatuz.
- Herri soinu-tresnak eta hos jostailuak egiteko eta konpontzeko tailerra antolatu.
- Liburutegi, fonoteka eta irudi artxibo espezializatua antolatu.
- Gure herri kultura biltzeko eta ikertzeko lan taldeak antolatu, hauen lanak bildu eta argitaratzeko bideak jarri.
- Herri musika argitaldaria espezializatua; aldizkariak, liburuak, hots grabaketak eta filmazioak.

Helburu hauek aurrera atera ahal izateko aurkezten dugu Herri Musikaren Txokoa eta egitarasmo honen atalen antolaketa, dokumentazio zentruaren zerbitzuak, gaurko ondarea eta bukatzeko zertan den gaur egungo egoera.

## 3. "HERRI MUSIKAREN TXOKOA"-REN ATALEN ANTOLAKETA

Zentru honek nagusiki ondorengo sail edo atalak batzen ditu:

- Soinu-tresnen bilduma (erakusketa eta biltegia)
- Soinu-tresnak egiteko eta konpontzeko tailerra
- Fonoteka
- Liburutegia
- Irudi artxiboa (argazki, zine eta bideo).
- Hitzaldi, ikastaro eta entzundietako aretoa.

### 3.1 Soinu-tresnen bilduma. Erakusketa eta biltegi kontsultagarria

Soinu-tresnen bildumaren zati batekin erakusketa antolatu eta bestea biltegian (ikertzai-leentzat bisitagarria) ordenaturik gorde.

Erakusketa Euskal Herriko eta mundu guztiko soinu-tresnak eta hots jostailuak, Curt Sachsek proposatutako sailkapen era erabiliz taldekatu eta sailkatuak. Guzti hau, soinu-tresnen, joleen eta hauen inguruko argazki eta gutunekin. Batzuetan, soinu-tresnen marrazki eta planoekin osatuz.

Bai bakarkako edo taldekako bisitarako bitrinetan agertzen diren soinu-tresnak entzuteko audio sistema eta multimedia bat informazio orokorra gehiagorekin.

Erakusketaren antolaketa eta sailkapena:

Asko izan dira, ezagutzen diren soinu-tresna moten ezagutzan sakontzeko aurkeztutako kriterioak, beraien berezitasunetan oinarrituriko kategorietan taldekatuz. Honela, soinu-tresnen arteko erlazio eta zerikusiak planteatzeko ordenak finkatu nahi izan dira.

Hona hemen zenbait sailkapen sistema:

- Soinu-tresnaren funtzio musikalean oinarrituak: melodikoa, erritmikoa, armonikoa,...
- Bere osaketan parte hartzen duten materialen arabera.
- Soinu-tresnaren hots iturrien eta akustikaren arabera.

Azken honetan oinarriturik, 1914ean, Erich M. von Hornbosteleta Curt Sachs alemaniarrek asmatutako sistema, printzipio akustikoetan oinarriturik dago. Sailkapen sistema hau, orokorrean, unibertsalki onartua izan da.

*«Hala ere, erabat logikoa izango den sailkapen bat egitea ezinezkoa da, soinu-tresnak gizakiaren asmakizun artifizialak bait dira. Animalia eta landareekin egin daitekeen bezala, hauekin ezin dezakegu era berdinean sailkapen koherenterik egin»<sup>3</sup>.*

*«...logikaren bitartez ezarritako sailkapen eta terminologiaren zehaztasunagatik, nagu - situ den sistema E. von Hornbostel eta C. Sachsek 1914ean sorturikoa izan da»<sup>4</sup>.*

Sistema hau da, gure soinu-tresna autoktonoak sailkatu, erlazionatu eta taldekatzeko aukeratu duguna, nahiz eta jakin, kasu guztietan ezin dela era oso batetan erabaki, bai bait dauka sailkatzen zailak diren batzuk, eta baita talde batean baino gehiagotan sartu ditzazkegunak ere.

E. von Hornbostel eta Curt Sachsek beren sisteman, oinarritzko bost talde proposatzen dituzte. Bostgarren taldea Electrofonoena da, eta berau alde batetara utziko dugu, landu behar dugun gaitetik at geratzen bait da.

Hona hemen beste lau taldeak:

- Idiofonoak; bibratzen duen elementua soinu-tresnaren gorputza denean. Berau beraz, aparteko tinkaketarik behar ez duen (soka edo partxeak behar duten bezala) eta soina sortu dezakeen materialekin egina egongo da

3. Curt Sachs. "Historia Universal de los Instrumentos Musicales", p. 9. Buenos Aires, 1947. Ediciones Centurión.

4. François René Tranchefort. "Los Instrumentos Musicales en el Mundo", p. 16. Madrid, 1985. Alianza Editorial Alianza Música.

- Aerofonoak; haizezko soinu-tresna bezala ere ezagutzen diren hauek oinarrizko bi elementu dituzte: aire zutabe bat gordetzen duen hodi edo ontzi bat eta aire hori bi-brarazteko beharrezko dugun eragilea.
- Menbranofonoak; hotsa, zabaldu eta tinkaturiko membrana baten bibrazioek sortzen dutenean.
- Kordofonoak; bibratzen jarritako soka tinkatuek osatzen duten soinu-tresnak dira.

Talde hauen barnean, beste sailkapen batzu eginten dira, ondoko aldagai hauen arabera: Hots bibrazio eragilea (adibidez, aizezkoetan aire zutabeari bibrazioak transmititzen diotena). Materiala, itxura eta eraketa (adibidez, idiofonoetan: metalofonoak, litofonoak...e.a.). Hotsa sortuko duen materiala bibratzen jartzeko era (adibidez, sokazkoetan soka bi-brarazteko erabiltzen den modua: pultsatua, kolpeatua, igurtzitakoa).

Sistema honetan oinarririk, soinu-tresnak lau gunee edo "plaza" berezietan banaturik daude eta bostgarren plaza batean sistema hau alde batera utzirik, Euskal Herriko herri musikaren historian agertzen diren musika taldeak (txistu taldea, dultzaina taldea, trikitixa, rondaila, musika banda,...) eta bestelako tresna bereziak (gramofonoak, organillo, ...).

Jarraian, hona hemen aurkezturiko sistema erabiliz, Euskal Herriko soinu-tresnen sailkapena eta "plazaz plaza" egindako kokapen banaketa. Hau Aita Donostiak "Instrumentos de Música Popular Española"<sup>5</sup> lanean erabiltakoaren antzekoa da, bera ere E. Hornbostel eta Curt Sachs-en sailkapen eran oinarritu bait zen.

Ahal diren kasu guztietan euskal soinu-tresnekin batera inguruko eta urrutiko mota bereko soinutresnak jarririk. Honela, garbi gelditzen da soinu-tresna autoktonori buruz hasieratik aipatu dugun ideia (osagai autoktono eta unibertsalen nahasketa).

## IDIOFONOAK

### A) Zuzenean perkutituriko idiofonoak:

Txalaparta, toberak, kirikoketa, ote-jotzea....., bata bestearen kontra jotzen diren makilak, almaizak.

### B) Era ez zuzenean perkutituriko idiofonoak:

Txaramelak-tarrañuelak, arxaluak, goilareak, kriskitinak, kalaka, matraka-mailuak, ezkilak-joaleak-txintzarriak, kaskabulo, kanpaiak, panderoaren txindak, kainabera, kikalaska, kaskamelan-intxaurrak,...

### D) Igurtzi edo harraskaturiko idiofonoak:

Karraka, igurtzitako botilak.....

### E) Punteaturiko idiofonoak (malguak):

Tronpamosugitarra-mosumusika, igelak.

---

5. P. Donostia. "Instrumentos de Música Popular Española". Anuario Musical del IEM, nº II, p. 105152. Barcelona, 1947. Reeditado en "Obras Completas P. Donostia", t. II, p.113179. Bilbao, 1983. Editorial La Gran Enciclopedia Vasca.





## MENBRANOFONOAK

Eragiteko eraren arabera sailkatuko ditugu.

A) Perkutitu-kolpeatuak, makil, baketa edo eskuarekin:

Atabala, danborra, danbolina, bonboa, panderoa,...

B) Igurtzitakoak:

Zuzenean: Panderoa

Ez zuzenean, ziri edo soka baten bitartez bidalitako bibrazioa: Eltzegorra, Tipiuntzia-zanbonba.

D) Airearen bidez (mirlinton delakoa):

Turutak-tururte.

Turuta-orrazia.

Paperezko soinu-tresnek.



## KORDOFONOAK

Tentsaturiko eta bibrazioan jarritako soka bat edo gehiagoz osaturiko soinu-tresnak ditugu. Hauek monodiko edo polifonikoak izan daitezke, eta gehienetan erresonantzi kaxa bat dute. Soka eragiteko eraren arabera, hiru taldetan sailkatzen ditugu:

A) Pulsaturiko soka:

Lauda, bandurria, mandolina, gitarra, maniura-arpa.

B) Igurtzitako soka:

Arrabita-rabela, arrabita-biolina, zarrabete, Arizkungo "arpa".

D) Perkutituriko soka:

Danburia ttun-ttun.



## AEROFONOAK

Airea bibratzen jartzeko erabiltzen diren sistema edo eragilearen arabera taldekatzen dira.

A) Flauta baten ertz zorrotzua:

Jostailuzko flautak: Txulubitak, txilibituak.

Esku bateko flauta zuzenak: Txistua, txirula.

Bi eskuko flauta zuzenak: Txilibitua (Irun-Hondarribiko txilibitua).

Zeharkako flauta: (kanpokoak).

Hodi hertsikoak (Flauta de Pan): Zikirotzaile txilibitua.

Bestelako txulubitak: Albarikoke hezurra, latazko txulubita...



B) Ezpainen bibrazioa-Tronpeta:

Adar mota desberdinak, turuta-korneta,...

D) Mihien bibrazioa:

Mihi bakarrekoa-Klarinetea:

(batientea) Alboka, xirularrua, harrobietako korneta, basurdetako korneta,...

(librea) Akordeoi diatonikoa-soinutxiki-trikitixa, akordeoi kromatikoa, aho-soinua-xotixe-filarmonika.

Mihi bikoitzekoa-Oboea:

Gari-sustarra, Sunprinu-tronpeta, txanbela, dultzaina-gaita, xirolarru-gaita-bota.

E) Aerofono librea:

Firingila, furrufarra, zurrunbera, ziria.

F) Bestelakoak:

Okarinak

Hegabehera erreklamua.

Orkestra-banda herri musikan erabilitako bestelako haizezko soinu-tresnak: klarinetea, rekintoa, zeharkako flauta, tronpeta, tronboia, bonbardinoa....

## BESTELAKOAK

Musika taldeak:

Txistu taldea (txistu, silbote, danbolina, atabala)

Dultzaina-gaita taldea (dultzaina-gaita, danborra)

Trikitixa (dultzaina, akordeoi diatonikoa, biolina, panderoa)



Rondaila-estudiantina (bandurria, lauda, kitarra, zeharkako flauta, klarineta eta perkusioa)

Musika banda (aizea, metala, "madera", perkusioa)

Bestelako soinugailuak:

Mota ezberdinetako gramola eta gramofonoak.

Pianoa, organilloa

Armonium

Irratiak, magnetofoiak, .....

## HOTS-JOSTAILUAK

Mota eta munduko alde ezberdinetako hots-jostailuak.

## ARETOA

Erakusketa monografikoak egiteko aretoa.

### 3.2. Soinutresnak egiteko eta konpontzeko tailerra

Bi motatako tailerrez osaturik:

1. Soinutresnak egiteko garai bateko tailerrak. Gure soinu-tresnak beste ikuspuntutik eza-gutzeko aukera, mota guztiko jendeari zuzendua.

Egile zaharrek erabilitako materiala eta tresna zaharrak.

2. Lanerako tailerra.

Herri musikaren dokumentazio zentru bat egiteko, antolatzeko eta funtzionamendurako egitasmoa

Soinu-tresna eta hots-jostailuak egiteko eta konpontzeko behar den materiala eta tresnariarekin antolatuturik.

Helburua didaktikoa eta laguntzekoa eta ezkomertziala duela kontutan hartuz, tailerrak, gaur egun lortzeko zailak edo ezinezkoak diren soinu-tresnak eta hots-jostailu tradizionalak egingo lituzke. Honekin batera, soinutresnak eraikitzeko era tradizionala berreskuratu nahi da. Hortarako behar den tresneria eta materialekin antolatua egongo da.

### 3.3. Fonoteka

Bertan, herri musika grabazioen bilduma aurkitu daiteke, bai abestuak baita soinu-tresna desberdinekin jotakoak ere.

Euskal Herriko herri musikaren diska eta kasete-zinta zaharrak, bai orijinalak eta baita kopiak ere:

Euskal Herriko eta munduko herri musikaren gaur egungo kasete, diska eta C.D.

Euskal Herriko irratietan dauden artxibu sonoroen kopiak, eta baita, herri musikari dagokion irradi frantses eta espainoletan eginiko grabazioen kopiak ere.

Bilketa grabaketak bai kasete, magnetofoi zintak edo eta editatu gabe dauden DATak.

Kontsulta eta erabilpenerako azpiegitura teknikoa.

### 3.4. Liburutegia

Musika, eta soinu-tresna herrikoiei buruz dauden liburu, aldizkari eta era guztietako idazlanak.



Herri musikaren partiturak, bai editatu eta baita editatu gabeak ere.

Herri musikari buruzko bibliografiaren erreferentziak.

Kontsulta eta erabilpenerako azpiegitura teknikoak.

### **3.5. Irudi artxiboa (argazki, marrazki, zine eta bideoa)**

Zuzeneko bilketetan eginiko argazki, pelikula, eta bideofilmazioak.

Argitaratutako materialak, eta beste batzuek egindakoaren kopiak.

Liburutegi eta fonotekako material bilduman aurkitzen diren argarkien erreferentzi orokorrak (kokapena, gaia, soinutresna, ....) ordenagailuan sartu.

Ondorengo erakundeetan aurkitu daitekeen folkloreaki buruzko materiala: Euskal Filмотeka, Euskal Telebista, Tele Norte, Tele Navarra, Radio Televisión Española, Herrietako edo eta eskualdeetako telebistak, Frantziako eta Espainiako telebista kate pribatuak,.....

Kontsulta eta erabilpenerako azpiegitura teknikoak.

### **3.6. Hitzaldi, ikastaro eta entzunaldietarako aretoa**

Herri Musikaren Txokoak ekintza hauetarako beharrezkoak diren aretoak euki beharko lituzke.

Liburutegia ikasteko gela gisa erabili daiteke. Ikastaro, hitzaldi eta bai zuzenean edo grabazioen bidez ematen diren musika entzunaldietarako areto egokia. Azken honetarako, gure ondoan hauzo elkarteak duen egoitzaren aretoa erabili dezakegu.

## **4. "HERRI MUSIKAREN TXOKOA" GUNEAREN ZERBITZUAK ETA FUNTZIONAMENDUA**

Ikusi daitekeenez, egitasmo hau betebeharrak ezberdin betetzera bideratua dago, eta honen batera mota ezberdiñetako hartzaileei eskeinia:

### **4.1 Jende guztiari**

Euskal kulturaren, eta batez ere hemengo eta munduko herri musikaren nolabaiteko interesa edo kuriositatea duten guztiei.

Hauei, bakarkako edo taldeka antolatutako ikustaldia eskeintzen zaie. Antolatutako talde hauei honetaz gain, nahi izanez gero bisita gidatua soinutresnen aurkezpen eta joaldiez lagundua. Hau antolatu daiteke ere astean behin egun eta ordu finko batean.

Aldizka, Herri Musikaren Txokoak antolatutako egingo diren herri musika abeslari, jole eta taldeen emanaldiak. Komeniko litzake aldizkakotasun hori finkatzea eta urtean behin, hiru hilabetean behin, hileroko eta asteroko mota ezberdinetako herri musika ihardunaldi bilerak eta emanaldiak antolatzea.

### **4.2. Ikastetxeetako ikasleentzat**

Ikastetxe desberdin eta musika eskoletako ikasleentzat: erakusketa-tailerretako taldekako bisitak.

-Erakusketa:

Euskal Herriko eta munduko soinu-tresna eta hots-jostailuen ikustaldia. Bisita gidatua hauetan nahi izanez gero, soinutresnen aurkezpen, hitzaldi, eta jotzearen laguntzaz.

-Tailerra:

Hots-jostailu eta soinu-tresna erresen eraikuntza. Honekin batera nola funtzionatzen duten eta landuagoak dauden zenbait soinutresnekin duten erlazioa ikusiz:

Soinu-tresnen osaketa eta egitearen prozesua.

Soinu-tresnen eraikuntzan erabiltzen den materialaren lantzea eta tratamendua:

Kanabera eta egurra noiz moztu behar den, landare hauen bizitzan ilargiaren egutegiak duen eragina, larruaren prestaketa....

Soinu-tresnaren zati bakoitzak betetzen duen funtzioaren aurkezpena: Hots bibrazioaren sorburua, bokila, hodi sonoroa, aire zakua-hauspoa, hots areagotzailea, erresonantzia kaxa.....

(Bisita hauek eskeintzen duten guzti hau, ikastetxeetako musika egitarauaren barnean egon beharko litzateke. Gaur egun eta noizbeinka, zenbait ikasteetxeetan holako klaseak ematen ditut musika egitarauen barne. Zalantzarik gabe, guzti hau emateko askoz eta ego-kiagoa da gune honek eskeintzen duen aukera).

Goi mailako Ikastetxe eta Musika Kontserbatorioetako ikasleek Ikasketen egitarau barnean prestatu behar dituzten lanetarako liburutegi, fonoteka, irudi artxiboa eta soinu-tresnen bilduma erabiltzeko aukera eta lan hauetan behar duten aholku eta laguntza.

### **4.3. Ikastetxeetako musika irakaslegoari**

Euskal Herriko Unibertsitateko Irakaslego Fakultate eta Musika Kontserbatorioetan musika irakasleen formazio obekuntzarako osagaiko ikastaroak, halako gaiak landuz:

Herri musika orokorrean eta Euskal Herriko herri soinu-tresnak (soinutresna, jole eta inguruko historia, artezketa orokorra, eraikuntza,.....).

Hotsjostailuak: azterketa orokorra (non, noiz, nork eta zertarako erabiltzen zen), eraikuntza, nola jotzen diren,.....

Honetarako erakusketaren soinutresnen bilduma eta tailerraren materiala eta tresneria ikastaro hauen zerbitzuan dago.

### **4.4. Soinutresna joleei**

Guneak duen artxiboa, bai musika idatzia eta grabatutakoa erabil dezakete, duten errepertorioa aberasteko eta zabaltzeko.

Beste soinu-tresnak edo estilo eta joerak ezagutzeko, aztertzeko eta ikasteko seminarioak eta ikastaroak.

Edozein herri soinu-tresna konpontzeko zerbitzua (bertan eginik edo non egin lezakeen informatuz).

Eskuratzeko zaila dituzten herri soinu-tresnen eraikuntza (bertan eginik edo non egiten duten informazioa ematen):

Alboka. Bizkaiko eta Gipuzkoako modelo zaharrak eta gaur egun erabiltzen direnak.

Danburia-ttun ttun. Ezagutzen diren soinutresna zaharren kopiak eta dokumentu zaharretan azaltzen direnen berreraikuntza.

Txirula, tronpa-mosukitarra, txanbela, Gipuzkoako dultzaina, txalaparta-tobera, eltzegor, txaramelak, kriskitiñak.....

Aspaldian galdutako zenbait suinu-tresnen berregitea: zarrabetea, arrabita, xirolarrua,.... Azken honetarako, tresna egiterakoan egileek beharko zuten dokumentazio eta aholkua ahal dugun neurrian emango genuke.

#### **4.5 Folklore eta herri musika arloan lanean dihardutenei**

Hauei, beren jakinduria zabaltzen eta ikerketa lanak prestatzeko laguntza ematen zaie. Hortarako, Herri Musikaren Txokoaren erakusketa, liburategia, fonoteka eta irudi artxiboa beraien eskuetan uzten da egin nahi duen lan horietan lagungarritzat (kasu hauetan eta goi mailako ikasleek egiten dituzten lanetan ere, bukatzerakoan, egindako lanaren kopia bat bertako liburutegian hutzi behar da dokumentazio artxiboa aberastuz).

Aldizka antolatuko dira ondorengo gaiei buruzko hitzaldi eta ikastaroak:

Tresnen eraikuntza, interpretazioa, etnomusikologia (musika, soinu-tresnak, dantza, festa herrikoiak...), bertako eta kanpoko soinutresnei buruzko monografikoak.

Emanaldi, entzunaldi eta proiektzioak. Zenbait kasutan, hitzaldi eta ikastaroekin lotuak.

Antolatutako hitzaldi, ikastaro eta emanaldien materiala, idatzi, grabazio eta filmatuz jasoko litzake, zuzenean gure artxiboetara pasatuz.

Bakarkako edo taldeko ikerketa edo lanen bat egiten ari diren guztiei zuzenduriko konsulta gunea.

#### **4.6. Soinu-hots tresna, jostailu eta tramankuluak egitea**

Lortzeko zailak edo ezinezkoak diren soinu-tresnak egiten dira. Adibidez, iadanik eginak dira, jabetza partikularrekoak diren edo Euskal Herriko eta kanpoko beste Zentruetan aurkitzen diren soinu-tresnen kopiak.

Jakina da, zenbait hotsjostailu eta halako tramankuluak herri jolasketa eta ekintzekin lotuak daudela eta kultur talde asko ohitura horiek berreskuratu nahian ari direla. Horretarako ezinbestekoa da tresna horiek egitea eta tailer honetan egin genezake lan hori:

Karrakak, kalakak, matrakak, txulubidak, turutak,..... Kasu guztietan, toki eta ekintza ezberdiñetako ezagutzen ditugun modelo denak berreskuratuz.

#### **4.7. Argitaratzeko bidea**

Herri musikari buruz egiten diren zenbait lan ezkomertzialak aurrera ateratzea oso zaila denez, argialetxe bat martxan jartzearen aukera ikusten da:



Musika eta literatur idatziak

Musika grabaketak

Ikusentzutekoak

Hortarako, hori posible izateko, aurretik, interesatuen gutxiengo talde bat osatu beharko litzake tirada txiki bat ziurtatzeko. Edizio bakoitzeko ale batzuk talde horrek eskuratuko ditu, beste batzuk Euskal Herriko eta munduko herri musika eta kultura erakunde eta artxibategietara banatu eta besteak bertan gordeko dira geroako.

Bestela, beste erakundeen laguntza edo kolaborazioa beharrezkoa litzateke. Adibidez, Eusko Jaurlaritzaren laguntzarekin, Elhuyar eta Herri Musikaren Txokoaren artean egina berria den "Euskal Herriko Soinu-tresnak" CDRa, ikastetxeetako musika ezkuntzara zuzendua.

## 5. GAURKO ONDAREA ETA EGOERA

Jarraian agertzen diren ale kopuruak ez dira oso zehatzak. Hau ezagutuko dugu atalez atal egiten ari den fitxaketa bukatzen denean.

### SOINUTRESNAK

Euskal Herriko eta kanpoko 800 soinu-tresnatik gora. Sailkapen talde guztietakoak, eta munduko bost kontinenteetakoak.

### FONOTEKA

Argitaratutako 2000 aletik gora, L.P. kasete eta C.D. formatoetan.

Argitaratutako Euskal musikaren bilduma zahar eta berriak: Baionako Euskal Museoa, Agorila, Columbia, Herri gogoa, Cinsa, Xoxoa, I.Z., Elkar,....

Abeslari eta soinu-joleak diren emaleei zuzenean grabatutako ehundaka kasete, magnetofoi zinta eta DAT.

Segura eta Loiola irratietako Euskal Musika ondarearen grabazio batzuen kopiak.

Munduko erakunde eta musika editora ezberdinak argitaratutako herri musika (diska, kasete, C.D.): Pariseko Musée du Hommeko bilduma, UNESCOko bilduma, Berlineko Museoko bilduma, Armonia Mundi, Edigsa, Albatros, Le Chant du Monde, Radio France, Ocora, Arion, Folkwais, Sonifolk, Saga, Several Records, Guimbarda, Ungaroton, Amiga,.... zenbait kasutan bilduma osoak, eta beste kasutan, soinu-tresna eta herri musikari buruzko ikerketetan interesgarriak diren aleak bakarrik.

### LIBURUTEGIA

2000 aletik gora.

Liburu eta argitaratze aleetaz gain, bilduma zahar eta berriak: Gure Herria, Nazioarteko Eusko Ikaskuntzen aldizkaria (RIEV), Boletín de Amigos del País (ale batzuk), Eusko Folklorearen urtekaria (AEF), Cuadernos de Etnología y Etnografía de Navarra, Auspoa bilduma, Auñamendi bilduma, Kuliska sorta (osatu gabe), Txistulari (musika, lehenengo aletik aurrera, bilduma osoa 1958tik aurrera), Dantzariak (bilduma osoa), Revista de Folklore de Valladolid (bil-

duma osoa), Nassarre, Pastel (Toulouseko konserbatorio occitarra), Dastum (Bretaña), Música de RAIZ, Folkesi, Argia, Narria (Museo de Artes y Tradiciones Populares, U.A. de Madrid), Gaiteros de Aragón, ...

Espezializatutako hiztegi eta enziklopediak, Musika eta soinu-tresnetako GROVE enziklopediak bezalakoak.

## ARGAZKI, BIDEO ETA ZINE ARTXIBOA

Urte askotan, bilketetan egindako ehundaka argazki.

Era berdinean, 8mm eta 16mm zine zinta gutxi batzuk.

Hirurehun bideozintatik gora. Batzuk zuzenean filmatutakoak eta besteak, beste batzuek egindakoaren kopiak eta argitaratutakoak.

## TAILERRA

Leon Bilbao (1916-1990) Arteako (Arratia-Bizkaia) albokari ospetsua zenaren albokak egiteko tailerreko material guztia. Tailer hau Leonen aita zen Jose Mari Bilbaok (1886-1977) osatu zuen.

Tailer berri bat, albokak, pitak, jostailuak eta bestelako tresnak egiteko behar diren gauzekin.

## GAURKO EGOERA

Gaur egungo egoera honako hau da. Oiarzungo Udala eta Juan Mari Beltran Argiñenaren artean egindako akordioaren edo hitzarmenaren ondorioz:

1995ko uztailan Oiarzungo Udaletxeak Ergoiengo Eskola zenaren etxea uzten dio Juan Mari Beltran Argiñenari, honek aurkeztutako "Herri Musikaren Txokoa" proiektuaren antolaketarako.

Bertan, areto eta gela ezberdinetan, jarri dira Juan Mari Beltran Argiñenaren materialak.

Soinutresna bilduma: Argazkiak eta ordenagailuz, 700 soinutresnetako fitxatik gora eginak daude. Soinutresnak erakusketako bitrina eta biltegian kokaturik daude.

Fonoteka: Entzuteko eta kopiatzeko azpiegitura teknikoa. Materiala ordenaturik dago eta 1300 fitxa eginak.

Biblioteka: Informatika azpiegitura (ordenagailua, inpresora, skanerra,....). Materiala ordenaturik dago 2000 fitxatik gora eginak

Irudi artxiboa: Ikusteko eta kopiatzeko azpiegitura. Materiala ordenaturik.

Tailerra: Leon Bilbaoren tailerra bere bitrinaran jarria dago.

Naiz eta oraindik martxan ez egon, berrogei talde edo pertsonatik gora pasa dira gure zentritik, prestatu dituzten lanetako dokumentazio bila.

Oiarzungo bi enpresen diru laguntza lortu da eta orren ondorioz, dedikazio gehiagorekin ari naiz 1998-99 ikasturte hasieratik.

Funtzionatzeko behar diren beste laguntzak lortzeko arremantetan ari gara beste instituzio, erakunde eta enpresekin. Laguntza hauek lortzen diren neurrian antolatu beharko ditugu

Herri musikaren dokumentazio zentru bat egiteko, antolatzeko eta funtzionamendurako egitasmoa

zentruaren egutegia, ordutegia eta bestelako xehetasunak (sarrerak, gidariak,...), bitartean, bisitariei ateak zabaltzeko behar diren gutxieneko baldintzak lortzen diren arte, jarraituko dugu orain arte bezala dokumentazio bilketa-ikerketa lanetan, ikertzaileei laguntzen eta antolaketa lanetan. Espero dugu epe ez oso luzean lortuko dugula erabat martxan jartzeko behar den laguntza hori.

Aztertzen ari gara ere, geroan zentru honek har zezaken izaera juridikoa (patronatoa, fundazioa,...).